



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jagoba Manterola Ruiz
Mikel Gereka Zelaia
Carmelo Ayoroa Hualde
Marcelino Bazterrica Alchu
María Milagros Erreguerena Vera
Pedro José Alchu Ariztegui

2014ko abenduaren 17an, 19:30etan, Ohiko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURAKO AKTA ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko Bilkurako aktari. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu da akta.

2. OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERAK.

A.E.S.S.ek lizentzia eskatu zuen, *Gorostibiaenea* etxean barruko obrak egiteko: komunen aldeko paretak bota, berreraiki eta alde horretako instalakuntzak berritu, 6.050 euroko aurrekontuarekin. Aurkeztutako agiriak aztertu ondoren eta *Gorostibiaenea* etxearen barruan egiten ari den obrak eskatutakoak baina handiagoak direla kontutan hartuz, aho batez erabaki dute:

1. Barruko obrak gelditzeko agindua ematea E. jaunari, lizentzia lortzen ez duen bitartean.

2. *Gorostibiaenea* etxea barrutik birmoldatzeko proiektua aurkezteko errekeritzea E. jaunari. Egin nahi dituen lan guztiak sartu beharko ditu proiektuan.

3. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA. 2 POLIGONOKO 85 ETA 86 PARTZELAK.

Aztertu da Planeamendurako Arau Subsidiarioen antolamenduko egiturazko determinazioetako aldaketa, 2 poligonoko 85 eta 86 partzei dagokiona, hiri lurzorua handitzeko. M.B.U.G. da espedientearen sustatzailea. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 80, 79, 70 eta 71. artikuluekin bat etorritik, aho batez, erabaki da:

1. Planeamendurako Arau Subsidiarioen aldaketari hasierako onespena ematea.

2. Akordio hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitatean editatzen diren egunkarietan, hilabete bateko epean jendaurrean egoteko.

3. Espedientea igortzea Sustapen Departamentura, hark txostena egin dezan Nafarroako Gobernu departamentuen eskumenetako gaiez.

4. Erabaki hau jakinaraztea aldaketaren eremuan sarturik dauden lurren jabe guztiei eta mugakideei.

Jagoba Manterolak ez du erabaki honetan parte hartu.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

4. HIRIGINTZA HITZARMENA. LATSAGAKO U.E. 2.

Iturrengo Udalak, 2014ko urriaren 30ean egin bilkuran, erabaki zuen hasiera batez onestea hirigintzako hitzarmena P.M.E., I.A.M. eta L.M.A.V.ekin, espedientea abiarazteko baizik ez, Latsagako U.E. 2ko birparzelazioa eta urbanizazioa aurrera eraman ahal izateko. Espedientea jendaurrean egon da, 2014ko azaroaren 14ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren (224. zenbakia) eta alegazioa aurkeztu zuten I.A.M. eta L.M.A.V.k, ondoko hau eskatuz: lehenengo klausulan sartzea bidearen sarbideak izango duen neurri zehatza eta hirugarren klausulan gehitzea, P.M. geratzen dela U.E. 2ko unitateko eskubide eta betebeharretik kanpo. Aho batez erabaki da alegazioen edukia onestea, hitzarmenaren zentzua eta helburua mantentzen direlako.

Jarraian, aho batez erabaki da:

1. Behin-betiko onespina ematea hirigintza hitzarmenari, alegazioan eskatutako bi aipamenak sartuz.

2. Ahalmena ematea alkateari, María José Bereau Baleztena, hitzarmena sinatzeko P.M.E., I.A.M. eta L.M.A.V.rekin.

3. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea onespina hau.

Carmelo Ayoroa sartu da.

5. 2015EKO AURREKONTUA ETA PLANTILLA ORGANIKOA.

2015eko aurrekontua aztertu ondoren, aho batez, erabaki da:

1. Hasierako onespina ematea 2015eko aurrekontuari.

2. Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean.

Aurrekontuaren laburpena aipatzen da jarraian:

DIRUSARRERAK:		EUROAK
1. Kapituluak.	Zuzeneko zergak:	91.230,00
2. Kapituluak.	Zeharkako zergak:	10.000,00
3. Kapituluak.	Tasak eta bestelako dirusarrerak:	33.700,57
4. Kapituluak.	Transferentzia arruntak:	153.205,36
5. Kapituluak.	Ondareko dirusarrerak:	31.841,07
7. Kapituluak.	Kapital transferentziak:	8.000,00
DIRUSARRERAK GUZTIRA:		327.977,00
GASTUAK:		EUROAK
1. Kapituluak.	Langileen lansariak:	57.783,00



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

2. Kapitulua.	Ondasun eta zerbitzuen gastuak:	112.837,15
3. Kapitulua.	Finantza-gastuak:	3.100,00
4. Kapitulua.	Transferentzia arruntak:	120.265,00
6. Kapitulua.	Inbertsio errealak:	24.491,85
9. Kapitulua.	Finantza-pasiboak:	9.500,00
	GASTUAK GUZTIRA:	327.977,00

Gero, 2015eko plantilla organikoa aztertu ondoren, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 236 eta 271. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, aho batez, erabaki da:

1. Hasierako onespena ematea 2015eko plantilla organikoari.

2. Espedientea jendurrean jartzea 15 eguneko epean.

Hau da plantillaren edukia:

Funtzionarioak

1. Idazkaria. Maila: A. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Zubieta eta Iturengo Udalen Batasunaren menpe. Osagarriak: bateraezintasuna % 35,00; lanpostuko osagarria % 30,50. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa, 3. jakite maila (203/2001 Foru Dekretua), hizkuntz eskola ofizial batek emandako gaitasun agiria edo ofizialki balio berekotzat jotako beste titulazio bat. Egoera: hutsik.

2. Kontu hartzailea. Maila: B. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Doneztebe-Santesteban, Elgorriaga, Ituren eta Zubietako Administrazio Zerbitzuen Batasunaren menpe. Osagarriak: bateraezintasuna % 35,00; lanpostuko osagarria % 19,14. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa, 3. jakite maila (203/2001 Foru Dekretua), hizkuntz eskola ofizial batek emandako gaitasun agiria edo ofizialki balio berekotzat jotako beste titulazio bat. Egoera: hutsik.

3. Zerbitzu anitzetako langilea. Maila: D. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Zubieta eta Iturengo Udalen Batasunaren menpe. Lanpostuko osagarriak: % 12, % 20,79. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa, 1. jakite maila (203/2001 Foru Dekretua), lau kurtso gainditurik izatea hizkuntz eskola ofizial batean, edo bederatzi urrats gainditurik Nafarroako Gobernuak antolatutako kurtsoetan. Egoera: jardunean.

Lan-kontratudun finkoak

1. Administrari laguntzailea. Maila: D. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Zubieta eta Iturengo Udalen Batasunaren menpe. Lanpostuko osagarriak: % 12, % 25,85. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa, 3. jakite maila (203/2001 Foru Dekretua), hizkuntz eskola ofizial batek emandako gaitasun agiria edo ofizialki balio berekotzat jotako beste titulazio bat. Egoera: hutsik.

Langileen izenen zerrenda



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Idazkaria: hutsik.

Kontu hartzailea: hutsik.

Zerbitzu anitzetako langilea: Oinatz Asensio Santesteban. Maila: D. 2. gradua.
Lanpostuko osagarriak: % 12, % 20,79. Antzinasuna: 2004/06/26.

Administrari laguntzailea: hutsik.

Administrazio-kontratudunen izenen zerrenda:

Idazkaria: Miguel José Belarra Tellechea.

Kontu hartzailea: Aitor Navarro Aristorena.

Lan-kontratudunen izenen zerrenda:

Administrari laguntzailea: Amaia Ochandorena Mindeguia.

6. ZERGA-TASAK, TASAK ETA PREZIOAK 2015ERAKO.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritakoari jarraituz, aho batez erabaki da:

1. Zerga-tasak, tasak, prezioak eta kuotak mantentzea 2015 urterako, 2013ko abenduaren 19ko osoko kilturan onetsi ziren bezala, 1 zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuak izan zirenak, 2014ko urtarrilaren 2an.

2. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki oholean argitara ematea, behar diren legezko ondorioak izan ditzan.

7. OIHAN APROBETXAMENDUAK. TOTOLAZ ETA MIRUKABI.

Udalbatzak, behar bezala baimendurik, aho batez erabaki du salgai jartzea, gutun-azal itxiaren bidezko enkante irekian, ondoko oihan aprobetxamendua:

1. Lotea, *Totolaz*. 460 alertze japoniar, 300 metro kubiko zur eta 53 metro kubiko enbor txiki egiten dutenak. Hasierako prezioa: 6.912,15 euro (BEZa kanpo).

2. Lotea, *Mirukabi*. 353 haritz amerikar, 208 metro kubiko zur eta 143 metro kubiko enbor txiki egiten dutenak. Hasierako prezioa: 5.171,71 euro (BEZa kanpo).

Enkantea arautzen duen baldintzen orria onetsi da.

8. BAKE EPAILEA.

Bake Epaillearen kargua hutsik dagoela iragarri zuen Udalak, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren (Estatuko Aldizkari Ofiziala, uztailaren 2koa) 101. artikuluan eta hurrengoetan xedatuarekin bat, baita Bake Epallei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduaren (Estatuko Aldizkari Ofizialean, 1995eko uztailaren 13koa) 5, 6 eta 7. artikuluetan ezarriarekin bat ere.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Iragarkia, 2014ko urriaren 27ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (210. aldizkaria), eta ez da interesdunik aurkeztu.

Espedientean dauden agiriak aztertu ondoren, eta aipatutako araudian xedatutakoari jarraituz, aho batez –arazko quoruma- erabaki da:

1. Isidro Bazterrica Mutuberria hautatzea Bake Epaile bezala.
2. Erabaki hau jakinaraztea interesatuari eta Nafarroako Auzitegi Nagusiarri.

9. ZENBAIT ESKAERA.

1. Idazkariak irakurri du *Ameztiako* bizilagun batzuk aurkeztu zuten idazkia, 2014ko abuztuaren 28ko Osoko Bilkuran hartutako erabakiari erantzuna emanez. Akordio hartan erabaki zen, I.B.M.k eskatutakoa ukatzea, hau da, *Ameztiako* bidean bere kabuz botatako brearen kostua ez ordaintzea, arrazoi hauengatik: ez dago ekonomia-baliabiderik; bidea konpondu eta gero eskatu zen laguntza; antzeko beste kasuetan, jabeek konpondu dituzte bideak. Aurkeztutako idatziak, laburbilduz dio: *Ameztiako* bidea herri-jabetza da eta haren mantentze-lanak Udalarri dagozkio; betebeharrak horren utziera egin du Udalak, eta ondorioz, bidea kaltetua dago; *Ameztiako* bizilagunek bidea konpontzen joan dira, auzolan asko eginez; B. jaunak egindako konponketa ez ordaintzeko emandako erantzunak suposatzen du, Udala ez dela bidez arduratzen ez duelako nahi, eta utziera horrengatik arrisku handia dago istripuak eragiteko. Idatzia bukatzeko, eskatzen dute: uztailean egindako konponketaren kostua Udalak ordaintzea osorik edo laguntza bat ematea; Udalak jakinaraztea nori dagokion legez bidearen mantentze-lanak egitea; Udalak ez badu kostua ordaintzen, 2015eko auzolanetik deskontatzea diru-kopuru hori, ordaindu duten *Ameztiako* bizilagunei.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da ondoko hau jakinaraztea idatzia sinatu duten bizilagunei:

1. Idatziaren idazkera eta edukia iraingarriak iruditu zaizkio Iturengo Udalarri.
2. Udal honek ez dio bere ardurari uko egin bidearen konponketa lanetan. 2003 eta 2004 urteetan 304.860,78 euroko inbertsioa egin zen *Ameztiako* bidea konpontzeko, eta inbertsio hura finantzatzeko, mailegu bat ordaintzen ari da Udala, 20 urteko iraupenarekin.
3. Idatziak dio, mantentze-lanak ez egitea dela bidearen egoera txarraren arrazoia, baina ez du aipatzen bide horrek jasaten duen tona-kopuru handiko kamioien zirkulazioa, eta zirkulazio horrek bai kaltetzen duela bidezorua. Duela urte batzuk, 20 tonetara mugatu zuen Udalak *Ameztiako* bidean ibiltzeko karga; seinaleak jarri ziren eta baita kendu ere. Seinale haiek jarriko dira berriz eta 20 tona baino karga handiagoa duten ibilgailuek debekatua izango dute *Ameztiako* bidean ibiltzea. Debeku hori hausten duena izango da eragiten duen kalte edo istripuaren erantzule. Etxe guztietara bidaliko da abisua, pisua mugatua dagoela jakinarazteko.
4. Brea botatzeko ordaindutako diru-kopurua frogatzeko aurkeztu zen agiria ez da faktura bat eta ez du inongo lege-baliorik. Dena den, bidea konpondu eta gero eskatu zen laguntza eta zuzena izango zen konpondu baino lehen eskatzea, Udalak baloratzeko



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

bidea konpontzearen beharra eta lehentasunak. Bideak konpontzeko lehentasunak jartzea, Udalari dagokio.

5. Udal honek ez du azkeneko 3 urteetan eskaera bat ere hartu *Ameztiako* bidea konpontzeko. Orain, bidearen egoera jakinda, pentsatuko da zer egin, aurrekontuko baliabideen arabera.

6. Eta azkenik, idazkiaren sinatzaileek bilera batera deituak izan ziren Udaletxetik, gaia azaltzeko, eta, bat ez ezik, ez dira etorri. Afera bat konpontzeko bilera batera deituak ez badira etortzen, zaila da afera horrentzat konponbidea aurkitzea.

2. Idazkariak irakurri du J.G.A.k gai berari buruz (*Ameztiako* bidearen egoera, konponketak eta I.B.ri emandako erantzuna) aurkeztu duen idazkia. Idatziak, laburbilduz dio: antzeko beste kasuetan, jabeek konpondu dituztela bideak esaten duela Udalak eta hori ez dela horrela, *Landako bidea* Udalak konpondu bai zuen; galdetzen du nola ikusten duen Udalak *Ameztiako* bidearen egoera; brearekin konpondutako zatiaren egoera ezagutzen zuela Udalak eta konpontzea bere eginbegarra zela.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da ondoko hau jakinaraztea G. andreari:

1. *Landako bidea* hiri lurzorua da, ez da 2014ko abuztuaren 28ko erabakian aipatzen diren bide mota bera. Beraz, idatzian esaten duena ez da egia. Gainera, bide hori ez doa "*etxe batzuetara*" G. andreak esaten duen bezala, hainbat etxebizitza eta alorretara baizik.

2. Bestale, *Landako bideak* 180 metro neurtzen ditu eta *Ameztiako* bideak 3 kilometro baino gehiago. Ezin dira parekatu.

3. *Landako bidea* zoruberritzeko obra 14.638,58 euro kosta zen 2013 urtean eta urte berean ordaindu zen. *Ameztiako* bidea konpontzeko, 304.860,78 euroko inbertsioa egin zen 2003 eta 2004 urteetan, eta inbertsio hura finantzatzeko, mailegu bat ordaintzen ari da Udala, 20 urteko iraupenarekin.

4. Brea botatzeko ordaindutako diru-kopurua frogatzeko aurkeztu zen agiria ez da faktura bat eta ez du inongo lege-baliorik. *Landako bidea* zoruberritzeko obra egiteko erabakia publikoa eta legezkoa izan zen, udal-aurrekontuan sartu, onartu eta gero.

5. Udal honek ez du azkeneko 3 urteetan eskaera bat ere hartu *Ameztiako* bidea konpontzeko. Orain, bidearen egoera jakinda, pentsatuko da zer egin, aurrekontuko baliabideen arabera.

3. Idazkariak irakurri du J.G.A.k Nueva kaleko sarrera-irteerari buruz aurkeztu duen idazkia. Idatzian laburbilduz dio: Nueva kaleko sarrera-irteerak aldatu direla bizilagunei deus ere esan gabe; galdetzen du zergatia eta larrialdi egoera guztiak aurreikusiak dauden eta nola dauden kontenplatuak; bankuen artean utzitako pausua markatu gabe dagoela eta askotan tratatua egoten dela kotxeekin.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da ondoko hau jakinaraztea G. andreari:



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

1. Plazako itxitura martxan jarri baino lehen, bilera bat izan zuten G. andrearekin pertsonalki alkateak eta Jagoba Manterolak, eta egitasmoaren xehetasuak azaldu zizkieten bilera hartan.

2. Bestale, Plaza ixteko erabakia publikoa da, 2014ko apirilaren 3ko Osoko Bilkuran hartu zen, akta tabloian jarri zen eta interneten dago jarria ere.

3. Udalak erabaki zuen sartzeko sarrera bakarra uztea, anbulantzia eta suhiltzaileei mugatua. Seinalea jartzea erabaki zen, autoen sarrera debekatzeko salbuespen horretatik kanpo. Kartel bat jarri zen eta lapurtu zuten; berriz jarriko da. Debekua lurrean ere markatzeko asmoa zeukan Udalak eta Udalaren ardura da oraindik egin gabe badago. Ahal denean pintatuko da.

4. Dena den, egia da pausua askotan trabatua egoten dela kotxeekin. Jendeak ez badu aparkatzeko debekua errespetatzen, Foruzaingoari esan beharko zaio kontrolatzeko eta behar diren neurriak hartu beharko dira.

4. Aurtizko bestak antolatzeko diru-laguntza eskatu zuen E.A.k, bestako kontuak aurkezteko eskatu zitzaion eta 4.360 euroko gastuen zerrenda aurkeztu zuen. Gaia eztabaidatu da eta Iturrengo bestatan aurten ezarri den murrizketa kontutan hartuz, aho batez erabaki da 2.541 euroko laguntza ematea. Udala prest dago datorren urteko antolakuntzan laguntzeko, aurrekontua egokitu ahal izateko Udalaren egoera ekonomikora. Laguntzarik gabe geratu den diru-kopurua ordaintzeko arazoak balitu bestak antolatzen dituen batzordeak, prest dago Udala hitz egiteko.

5. I.G.E.k baimena eskatu du Udaletxeko ganbara erabiltzeko abenduaren 29 eta 30ean, Nafarroako Bertsozale Elkarteke negulekuko jarduerak egiteko. Baimena ematea erabaki da aho batez.

6. F.E.A.ri baimena eman zitzaion, ardien purinak botatzeko 2 poligonoko 490 partzela komunalean, salbuespen gisara eta baldintzekin (2014ko urriaren 30eko Osoko Bilkura). Ikusirik C.A.S.ek iratzea aprobetxatzen duela lursail horretan, aho batez erabaki da E. jaunari emandako baimena atzera botatzea, iratzeen aprobetxamendua zegoelako aurretik.

10. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: 2014ko azaroaren 7koa, *Aurtizko Ostatuko* ordutegia handitu zuena Aurtizko bestatako; 2014ko abenduaren 5koa, *Herriko Ostatuko* ordutegia luzatu zuena Egun Kulturaletako.

11. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: Nafarroako Gobernuak eman duen baso-aprobetxamenduko baimena — M.A.G.ri—; Nafarroako Gobernura bidali den baso-aprobetxamenduko baimen eskaera —J.C.S.ena—; Doneztebeko Udalak bidali duen informazio gutuna, etxebizitza babestuen lurzorua emateari buruz; Lurraldearen Antolamendu, Mugikortasun eta Etxebizitzako zuzendari orokorraren 1140/2014 Ebazpena, F.E.k jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoan deia egin zuena.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

12. HERRIAREN TXANDA.

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 22:40ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.